

309. Mapa: amanecer, alba / aube / dawn

GALDERA: 11100; ALG: 830; ALEANR: XI, 1276



	egunsenti
	(-) alba
	argitze
	argiurratze
	argiazkorri
	argileñhürü
	egun(as)ikera
	-argi
	-punta
	-zabal (-)
	goxalde
	eguntxinta
	argixirrinta
	argi(h)aste
	-nabar
	bestelakoak

- Kontzeptu aski zabala izanik erantzun ugari sorrarazi du, kasu batzuetan nahasmena ere eragin lezakeena.
 - **Bestelakoak:** argisortze (Larzabale), ekhijelkigia (Sohüta), ekhijelkitze (Montori, Sohüta), ostrantza (Dima).

Dima: *Egunen ostrantza dau: egunsentie, egunen argie.*
Berriz: lekukoak honela esan du erantzun moduan: *Egüne sabaltzera doie...*
Uztaritze: “goizargi” eguna argi delarik erabiltzen dela dio.
Baigorri: *argitze* zabalegia da, *argihaste* zehatza, *argizirrinta* ez horren erabilia eta *argiurratze* forma dotorea, lekukoaren arabera.
Gamarte: *Oskórri zera gorri-gorria dela* erabiltzen dela.
Jutsi: *Beti argi zirrintako jeikia uk* (esaera).
Altzürükü: *Argiazkorri, jüsto-jüsto hantik agei da, gaia fini dela eta jinen dela egüna.*
Santa Grazi: *Argizirrinta, ez argi uano.*
Ürrüstoi: *Argiezkorra, ikhusten delaik argia abiatü nahi dela.*